

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Lagran eta Haraneko Udalen Elkartean estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Idazkari-kontuhartzaile lanpostu hori bete behar da, udal elkarte hori sortu berria denez gero, hutsik baitago.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditut kontuan, eta hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hasiera ematea Lagrango eta Haraneko Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatzeko proposamenari, udal bien artean idazkari-kontuhartzaile lanpostu bat izateko, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan xedatutako moduren batean eta adierazten duten lehentasunaren arabera.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartze eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduari eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta Lagran eta Haraneko Udalen Elkarrekin izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena: idazkaria. 3. klasea.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzaila.

Azpitaldea: A1/A2.

Destino-osagarriaren maila: 26.

Berariazko osagarria: 28.000,00 euro.

Hizkuntza eskakizuna: C1 simetrikoa (C1, C1).

Derrigortasun data: 2025eko ekainaren 20a.

Lagran, 2025eko uztailaren 2a

Alkateordea

OSCAR KORRES LARRAURI

ERANSKINA

Nik, jaunak/andreak (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:; telefono zenbakia:; Estatutako gaikuntza duen toki administrazioako funtzionarioa: azpieskalakoa; gaur egun lanpostuan dihardut, toki erakundean, (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzaren lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–),

Adierazten dut

Jakin dudala Lagran eta Haraneko Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen pilaketagatik.

Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen dut

Lagran eta Haraneko Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo zereginen pilaketaren bidez (ezabatu soberan dagoena) betetzeko prozeduran parte hartzea.

Hauek eransten ditut:

*NANaren fotokopia.

*Estatutako gaikuntza duen toki administrazioako funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

*Metaketako postua eskatuz gero, zereginen pilaketengatik izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

*Hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea

....., 20.....(e) koaren(a).

Sinadura: